Astigarragako Udala

Obrak eta Zerbitzuak • Obras y Servicios
obraketazerbitzuak@astigarraga.net

ASTIGARRAGAKO UDALERRIAN BIDE GARBIKETAKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

Astigarragako Udala

Obrak eta Zerbitzuak • Obras y Servicios
obraketazerbitzuak@astigarraga.net

AURKIBIDEA:

I. KAPITULUA- KONTRATUAREN XEDEA:
ZERBITZU PRESTAZIOAREN HEDADURA
LURRALDE EREMUA
ZERBITZU-PRESTAZIOAREN ALDIA
ZERBITZUAREN ZABALKUNTZAK

II. KAPITULUA – LOTEAK
1. LOTEA. ZERBITZUAREN ANTOLAKETA
GUNEAK
BESTE ZENBAIT GARBIKETA BEHARRA
EZOHIKO LANAK
DEFINIZIOAK
2. LOTEA. ZERBITZUAREN ANTOLAKETA

III. KAPITULUA.- ZERBITZUAREN ERREGELAMENDUA
LAN ETA GORABEHERA PARTEAK
FAKTURATZEKO MODUA

IV. KAPITULUA - LIZITATZAILEEN BETEBEHARRAK
ENPRESAREN EGITURA
BITARTEKOAK ZERBITZUARI ATXIKITZEA
LARRIALDI EGOEREN AURREAN ERANTZUTEKO AHALMENA
ENPRESAREN LAN-PROPOSAMENA
ZARATEN ETA BIBRAZIOEN EMISIOA
ZERBITZUAREN ARDURADUNA
LANEN SEGURTASUNA
LOKALAK

Astigarragako Udala

Obrak eta Zerbitzuak • Obras y Servicios
obraketazerbitzuak@astigarraga.net

ASTIGARRAGAKO UDALERRIAN BIDE-GARBIKETAKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

I. KAPITULUA- KONTRATUAREN XEDEA:

ZERBITZU-PRESTAZIOAREN HEDADURA

Astigarragako udal-mugarteko lorategien mantentze-zerbitzuaren prestazioa da kontratu honen xedea.

Honako hauek biltzen ditu zerbitzuak:

- Espaloiak eta oinezkoen espazioak makina bidez eta eskuz erraztatzea, eta arekak eta galtzada-bazterrak garbitzea.
- GI-131 bide zaharra makina bidez edo eskuz erraztatzea.
- Erdialdeko zenbait gune ura erabiliz garbitzea, bai makina bidez bai eskuz.
- Zakarrontziak garbitzea eta hustea.
- Hiri-altzarien eta trafiko-seinaleen garbiketa.
- Buseko eta taxiko geralekuetako markesinen alde irisgarriak garbitzea
- Espaloiak urez garbitzea, makina bidez eta eskuz.
- Komun publikoak garbitzea.
- Larrialdi/hondakin-bilketa guneak garbitzea.
- Edukiontziak garbitzea.
- Koipe, olio eta abarren orbanak garbitzea.
- Zuhaitz-txorkoak garbitzea.
- Horma publikoak eta eskaileren mailarteak garbitzea.
- Bide publikoen ondoko berdeguneak garbitzea.
- Animalien gorozkiak eta gorpuzkiak garbitzea.
- Minigarbiguneetako hondakinak jaso eta Garbigunera eramatea.
- Markesinen estalkiak, ehunezko estalkiak eta espazio publikoko estalki zeharrargiak garbitzea.
- Larrialdi-egoeretan udal-zerbitzuei laguntzea.

Kontratua bi lotetan zatituta dago: Lehenengoa garbiketa orokorren eragiketak burutzeko izango da, eta bigarrena autobus-geltokietako estalki zeharrargiak, ehunezko estalkiak eta markesinak aldizka garbitzean datza.

LURRALDE EREMUA

Honako hitzarmen honek barne hartzen ditu Astigarragako herri barruko bide publikoak, publikoarentzat zabalik dauden Frontoiko eta Ikastolako espazio irekiak, Zarkumendegiko bidegorria, ermitaren ingurua eta larrialdi-guneak.

1. Eranskinean garbitu beharreko guneak eta horietako bakoitzean gauzatu beharreko lanak zerrendatu dira, azken horiek 2. Kapituluan zehaztu direlarik.

ZERBITZU-PRESTAZIOAREN ALDIA

Zerbitzuaren prestazioa lehiaketa esleitzen denetik zenbatzen hasi eta 15 eguneko epean hasiko da eta kontratuarekin amaituko da.

ZERBITZUAREN ZABALKUNTZAK

Hitzarmenak indarraldian dirauen bitartean, kontratistak bere gain hartuko ditu Udalak gauzatuko dituen gune publiko berrien garbiketak edo hirugarrengoengandik jasoko dituenak, baita Udalak zehaztutako guneetan leudekeen maiztasun igoerak ere.

Kontratistak instalazioa azter dezake, eta 15 eguneko epea dauka Udalari eragozpenen berri emateko, horrelakorik ikusten badu.

Bide publikoari urbanizazio berriak gehitzen zaizkion heinean zerbitzuaren dimentsio orokorra handituz joan daitekeenez, esleipenaren zenbatekoa eguneratzeko aukera egon liteke.

Hori gertatuz gero, esleipendunak kontratuaren aldaketa eskatuko du, garbitu beharreko azaleraren igoera esleipenaren unean zegoena baino % 5 handiagoa denean.

Garbitu beharreko azalera handitu ahala, zerbitzuaren zenbatekoa eguneratuko da, proportzionalki.

II. KAPITULUA- LOTEAK

Kontratua bi lotetan zatituta dago: Lehenengoa garbiketa orokorren eragiketak burutzeko izango da, eta bigarrena autobus-geltokietako estalki zeharrargiak, ehunezko estalkiak eta markesinak aldizka garbitzean datza*.*

1. LOTEA. ZERBITZUAREN ANTOLAKETA

Zerbitzua ahal den neurrian udaleko lan-ordutegiarekin bat etorriz egin beharko da. Halaber, ohiko egoeretan ez da goizeko 7:30 baino lehen hasiko.

Bide publikoak behar den moduan mantentzeko etengabe eta modu koordinatuan egin beharko diren oinarrizko eragiketen multzoa barne hartzen du zerbitzuaren prestazioak. Eranskinetako planoetan adierazi den eran, guneen arabera sailkatutako eragiketak honako hauek dira:

A zona
-Kaleak ekortzea eta zakarrontziak hustea astean 7 egunetan. (astelehena, asteartea, asteazkena, osteguna, ostirala, larunbata eta igandea) ordutegi-muga horiek ez dira aplikatuko sagardoaren denboraldian.

-Hiri-altzarien garbiketa* hilean behin.

-Autobus eta taxi geltokietako markesinen zati irisgarriak hilean behin garbitzea.

-Trafiko-seinaleak urtean behin garbitzea, guztiaren % 50.

-Espaloiak urtean 3 aldiz garbitzea, Maskarrene bidea eta Pelotari kalea izan ezik, horiek urtean 6 aldiz artatuko baitira (otsailean, apirilean, ekainean, abuztuan, urrian eta abenduan).

-Horma publikoak eta eskailera-oholak urtean behin garbitzea

-Batzuetan, zerbitzuaren irizpidearen arabera, mangeo bat egingo da urarekin.

-Edukiontzien garbiketa: edukiontzien inguruak astean 7 egunetan garbitzea.

-Bide publikoko poltsak biltzea eta edukiontzi batera isurtzea, astean 7 egunetan.

-Erribera Kulturguneko garbiketa-zerbitzuari laguntzea. Kanpoko azalerak (aurreko eta atzeko ataurreetako terrazak) astean behin (astelehenetan) ekortzeko makina baten bidez ekortzea, eraikinaren sarrerako puntuak osatzen baitituzte: plataformak, eskailerak, arrapalak eta harmailak.

B zona
-Kaleak ekortzea eta zakarrontziak hustea astean 5 egunetan. (Astelehena, asteartea, asteazkena, osteguna eta ostirala)

-Hiri-altzarien garbiketa* 3 hilean behin.

-Trafiko-seinaleak urtean behin garbitzea, guztiaren % 50.

-Espaloiak urtean 3 aldiz garbitzea, arkupeak izan ezik, horiek urtean 6 aldiz artatuko baitira.

-Horma publikoak eta eskailera-oholak urtean behin garbitzea -Batzuetan, zerbitzuaren irizpidearen arabera, mangeo bat egingo da urarekin.

-Edukiontzien garbiketa: edukiontzien inguruko garbiketa indartzea astean 5 egunetan.

-Bide publikoko poltsak biltzea eta edukiontzira isurtzea, astean 5 egunetan.

C zona
-Kaleak ekortzea eta zakarrontziak hustea astean 3 egunetan.

-Hiri-altzarien garbiketa* 3 hilean behin.

-Trafiko-seinaleak urtean behin garbitzea, guztiaren % 50.

-Espaloiak urtean bitan garbitzea.

-Horma publikoak eta eskailera-oholak urtean behin garbitzea -Batzuetan, zerbitzuaren irizpidearen arabera, mangeo bat egingo da urarekin.

-Edukiontzien garbiketa: edukiontzien inguruko garbiketa indartzea astean 3 egunetan.

-Bide publikotik ikuskatutako poltsak biltzea eta edukiontzira isurtzea, astean 3 egunetan.

E zona (industrialdeak)
-Kaleak ekortzea astean behin. (Asteartea edo osteguna)

-Industrialdeko kaleetan utzitako materiala biltzea, ondoren zerbitzu publikoek jasotzeko.

-Hiri-altzarien garbiketa* 6 hilean behin.

-Trafiko-seinaleak urtean behin garbitzea, guztiaren % 50.

D1 zona (Santiagomendi auzoa)
-Santiagomendi auzoko bide publikoa eta ondoko berdeguneak garbitzea, astean 2 egunetan (astelehen eta ostiraletan)

-Paperontziak hustea.

-Hiri-altzarien garbiketa* 3 hilean behin.

D2 gunea (Bentak, baseliza)
-Bidezidorrak eta aisialdirako berdeguneak garbitzea astean 2 egunetan (astelehen eta ostiraletan) apiriletik urrira bitartean, eta astean egun batean (astelehenetan) azarotik martxora bitartean.

-Paperontziak hustea.

-Hiri-altzarien garbiketa* 3 hilean behin.

F zona (Aurreko GI-131)
-Galtzada ekortzea, urtean 14 aldiz (hilean behin, urrian eta azaroan izan ezik, bi aldiz egingo baita). Arriskuak ebaluatzeko dokumentuan jasotako segurtasun-neurrien aplikazio zorrotza bete beharko da.

-Belar txarrak areketatik eta erdibitzaileetatik kentzea.

-Trafiko-seinaleak urtean behin garbitzea, guztiaren % 50.

-Autobus eta taxi geltokietako markesinen zati irisgarriak hilean behin garbitzea.

G zona (Ikastola Publikoko jolastokiak)
-Patioa ekortzea eta zakarrontziak hustea astean 5 egunetan. (Astelehena, asteartea, asteazkena, osteguna eta ostirala). Ekintza hau 8:30ak eta 9:00ak bitartean egin beharko da.

-Uraren bidezko mahuka hilean behin

-Atzeko patioa makinaz garbitzea urtean behin (otsaileko 1. astea).

-Hiri-altzarien garbiketa* hilean behin

H zona (pilotalekua)
-Kantxa eta harmailak ekortzea astean 5 aldiz

-Urtean 3 aldiz makina bidez kantxa garbitzea (maiatzaren 1. astean, uztailaren 3an eta urriaren 3an).

-Harmailak urtean hiru aldiz garbitzea (maiatzaren 1. astean, uztailaren 3an eta urriaren 3an).

I. zona (Zarkumendegira doan bidegorria)

-Zarkumendegiko bidegorria ekortzea, urtean 14 aldiz (hilean behin, urrian eta azaroan izan ezik, bi aldiz egingo baita). Arriskuak ebaluatzeko dokumentuan jasotako segurtasun-neurrien aplikazio zorrotza bete beharko da.

-Belar txarrak areketatik eta erdibitzaileetatik kentzea.

-Trafiko-seinaleak urtean behin garbitzea, guztiaren % 50.

J zona (Gobadarien parkea – Ibai-parkea)
-Bidezidorrak eta aisialdirako berdeguneak garbitzea astean 2 egunetan (astelehen eta ostiraletan) apiriletik urrira bitartean, eta astean egun batean (astelehenetan) azarotik martxora bitartean.

-Paperontziak hustea.

-Hiri-altzarien garbiketa* 3 hilean behin.

-Ur-goraldiren bat gertatuz gero, zerbitzuaren ardura izango da horren ondoriozko hondakin solidoak (poltsak, plastikoak, etab.) biltzea.

Zakurguneak (Portutxo, Izaskun, Ergobia eta Gobadarien parkea)

- Hondarra duten guneen garbiketa orokorra eta eskuaretzea (astean behin).
-
- Zaborrontziak hustea (egunero).

Larrialdiguneak: Roxario, Perurena, Santiagomendi, Oialume **(4 guztira)**

Larrialdigune osoaren garbiketa, honako maiztasun honekin:

- Negu-sasoian (urriaren 1etik martxoaren 31ra) gutxienez hamabost egunean behin.
- Uda-sasoian (apirilaren 1etik irailaren 30era) gutxienez astean behin.

Osagai berezien beste zenbait garbiketa:

- *Goiko Iturri urmaela garbitzea.* Urtean 5 aldiz.
  (Martxoa, maiatza, uztaila, abuztua eta urria). Garbiketa eragiketa honako honetan oinarrituko da: barruko ontzia hustean; ontziaren azpialdea, paretak eta berau osatzen duten gainerako elementuak presiopeko urez garbitzean; eta ondoren berriz betetzean.

- *Goiko Iturri latsarria garbitzea.* Urtean 12 aldiz garbituko da. Garbiketa eragiketa hau zaborra, plastikoak eta mota guztietako hondakin solidoak biltzean datza.

- *Komun publikoen garbiketa.* Egunero garbituko dira astelehenetik ostiralera, eta asteburuan eta jaiegunetan egunean 2 aldiz. Tresna sanitarioak produktu jakin batzuekin garbitzean, zorua urez garbitzean eta noizbehinka, egoerak hala eskatzen duenean, mahuka erabiliz garbitzean datza eragiketa hau.

Beste zenbait garbiketa berezi:

-Astigarragako erdiguneko eta Ergobiako zaindariaren jaietan garbiketa-zerbitzu berezi bat gauzatuko da egunero; era horretan, gutxienezjaien eraginpean dagoen gune osoa erraztu eta mahuka bidez garbituko da.

-Garbiketa berezi hori bera gauzatuko da Udalak babestutako beste jarduera batzuk antolatzen direnean (beste 7 aldiz urtean, gehienez) eta udalerriko gune publiko jakin batzuetan garbiketa berezia behar denean edo arazo bereziak jasan izanagatik garbiketa berezia eskatzen dutenean. Kasu horietan, zerbitzuak jai-eremuetan erabiltzen diren 120 litroko edukiontziak behar bezala kendu eta hustu beharko ditu hiri-bilketarako dagozkien edukiontzietan.

Ezohiko lanak

Ezohiko egoeretan (uholdeak, elurteak eta abar) oinarrizko zerbitzuak berrezartzea, komunikazio-bideak berriro irekitzea eta abar beharrezkoa denean, zerbitzu horri adskribituta egon ohi diren langileek udaleko lan-taldeekin lankidetzan lan egin beharko dute bide publikoan normaltasuna ezarri arte.

DEFINIZIOAK

* **Kaleak erraztatzea aipatzean** zera esan nahi da, eskuz edo makina bidez (erratz-makina mekanikoekin) espaloiak, oinezkoen espazioak eta arekak eta galtzada-bazterrak erraztatzea, estolda-zuloen garbiketari arreta berezia eskainiz, horiek buxatzea saihestearren. Azkeneko aipamen hori indartu egingo da udazkeneko hilabeteetan. Herbizida bidezko tratamendua emateko lorezaintza-zerbitzuaren planoan agertzen ez diren zolaketen elkargune, zintarri, areka eta, oro har,

planoan agertzen ez diren bide publikoko leku horietan guztietan ere belar txarrak kenduko dira. Halaber, horien ondoko berdeguneetako hondakinak bilduko dira. Zuhaitz-txorkoak garbituko dira eta koipe, olio eta abarren orbanen garbiketa indartuko da, baita animalien gorpuzki eta gorozkiena ere. Modu horretan jasotako hondakin-frakzio bakoitza bere sailkapenari dagokion eran kudeatuko da.

*__Zakarrontziak garbitzea eta hustea aipatzean__ zera esan nahi da, garbitu beharreko guneetan kokatutako zakarrontzi guztiak hustuko direla, horien edukiak dagokien edukiontzietan botaz. Gaikako zakarrontzietako hondakin organikoak gune bakoitzaren erraztatze maiztasunak finkatutako aldi guztietan bildu beharko dira, jasotako hondakin kopurua edozein dela ere.

***Larrialdiguneak eta hondakinen bilketaguneak (udalerriko puntu estrategikoetan eraikiak) garbitzea aipatzean** zera esan nahi da, mahukekin presiopeko ura jaurtiz horiek garbitzea eta ondoren, erratza eskuz pasaz, arrastatutako hondakinak biltzea. Horrez gain, bertan kokatuta dauden edukiontziak ere garbitu beharko dira.

***Koipe eta olio orbanak garbitzea aipatzean** zera esan nahi da, agiri honetan zehaztutako bide publikoetan ager litezkeen jatorri horretako orban guztiak garbitzea.

***Animalien gorpuzkiak eta gorozkiak garbitzea aipatzean,** zera esan nahi da, hildako animaliak jasotzea eta animaliek sortutako gorozkiak kentzea, eta ondoren dagokion garbiketa gauzatzea, agiri honen arabera erraztatze-eragiketak egitea aurreikusi den guneetan daudenean.

*__Hiri-altzarien garbiketa aipatzean__ zera esan nahi da, zakarrontziak, bankuak, jardinerak, mugarriak eta gainerako hiri-altzariak urez garbitzea (presiopean, beharrezkoa izango balitz), hondakinen edukiontziak eta farolak izan ezik.

Bus-geralekuetako markesinen eta taxien zati irisgarriak garbitzea da bus-geralekuen alboko panelak urez garbitzea (presiopean, beharrezkoa bada), baimendu gabeko kartelak kentzea eta estalkiaren beheko aldea garbitzea.

*__Trafiko-seinaleen garbiketak barne hartzen ditu__ horien ikusgarritasuna bermatzeko xedez pegatinak kentzeko edo urez garbitzeko (presiopean, beharrezkoa balitz) eragiketak.

*__Urezko “*mahuka bidezko garbiketa”* aipatzean__ zera esan nahi da, ur-harguneetako urez bide publikoa garbitzea, suteetan erabiltzen diren antzeko mahukak erabiliz.

*__Espaloiak urez garbitzea aipatzean__ zera esan nahi da, espaloiak, plazak eta, oro har, zoladura duten eremuak urez garbitzea, zoladurara erantsitako edozein zikintasun erauziz eta kenduz, koloreari eta garbitasunari dagokienez zoruak jatorrian zeuzkan ezaugarriak berreskura ditzan. Koipe, olio eta abarren orbanen garbiketa indartuko da, eta baita animalien gorpuzki eta gorozkiena ere. Eskuzko garbiketak zera adierazten du, zorua eskuila mekanikoak eta ura erabiliz garbitzea, uraren erabilera neurritsuaz. Garbiketa mekanikoak zera adierazten du, zorua garbitzaile edo desugerketa mekanikoen bidez garbitzea. Azkeneko kasu horretan, makinak udalaren ur-saretik hornitu ahalko dira, baina soilik udal-mugartean erabiltzeko izanez gero eta kontagailua duten hargune homologatuen bidez. Era berean, garbiketaren ondoriozko ura hondakin-uren sarera isuri beharko da, horretarako adierazitako kutxatilen bidez. Orokorrean, azalera handiak eta garbiak baliabide mekanikoak erabiliz garbituko dira, eta zirrikitu, erremate eta bihurguneak eskuz garbituko dira.

*__Horma publikoak eta eskaileren mailarteak garbitzea__ aipatzean zera esan nahi da, udalerrian dauden hormigoizko edo harrizko hormak eta eskaileren mailarteak garbitzea; hau da, belar txarrak kentzea, eta eskuzko tresnen bidez edo presiopeko uraren lantza erabiliz zikinkeria desitsastea.

*__Sagardo-sasoi gisa hartzen da__ urtarrilaren amaieratik hasita apirilaren amaierara arte doan garaia.

*__Bide publikotik poltsak jasotzea aipatzean__ zera esan nahi da, bide publikoan utzitako hondakin-poltsa guztiak biltzea. Poltsa horietako bakoitza dagokion edukiontzira bota beharko da, barruan daukan hondakin motaren arabera. Ezingo balitz zer eduki mota duten zehaztu, errefusaren edukiontzira botako lirateke.

2. LOTEA ZERBITZUAREN ANTOLAKETA:

2. lotea autobus-geltokietako estalki zeharrargiak, ehunezko estalkiak eta markesinak aldizka garbitzean datza. Jarraian, lote honetan artatu beharreko elementuak zehaztuko ditugu, baita egin beharreko eragiketak eta horien maiztasunak ere.

- 10 autobus eta taxi geltokietako markesinen estalkiak. (Vertiz, hezegunea, Txingurri, Ibailur, Erribera, Arrobitxulo, Ergobia Hernaniruntz, Ergobia Donostiaruntz, Iretza eta Taxi). Goiko aldea bi urtean behin artatuko da, eta laneko segurtasuna bermatzeko behar diren jasotze-baliabideekin garbituko da, eta, era berean, ura eta detergentea aplikatuko dira (presiopean, beharrezkoa bada).

- Ikastolako patioaren estalkia (idazkaritzatik eskuragarri dagoen isurialdea). Bi urtean behin artatuko da, eta eraikineko leiho irisgarrietatik garbituko da. Era berean, ura eta detergentea aplikatuko dira (presiopean, beharrezkoa bada).

- Ikastolako markesinak (sarrera nagusia eta patio txikia). Bi urtean behin, eraikineko leiho irisgarrietatik edo laneko segurtasuna bermatzeko behar diren jasotze-baliabideekin garbituko dira, eta, era berean, ura eta detergentea aplikatuko dira (presiopean, beharrezkoa bada).

- Emakumeon plazako eszenatoki estalia. Bi urtean behin artatuko da, eta laneko segurtasuna bermatzeko behar diren jasotze-baliabideekin garbituko da. Era berean, ura eta detergentea aplikatuko dira (presiopean, beharrezkoa bada).

- **Haur-parkeetako ehunezko estalkiak**. Bi urtean behin artatuko dira, eta laneko segurtasuna bermatzeko behar diren jasotze-bitartekoekin garbituko dira. Era berean, ura eta detergentea aplikatuko dira (presiopean, beharrezkoa bada).

- Erribera kulturguneko markesinak. Bi urtean behin artatuko da, eta laneko segurtasuna bermatzeko behar diren jasotze-baliabideekin garbituko da. Era berean, ura eta detergentea aplikatuko dira (presiopean, beharrezkoa bada).

Zerbitzua lanegunetan baina eskola-egutegian jaiegunetan egin beharko da (adibidez: Pazko astea) ahal den neurrian Udalaren lan-ordutegian, gainera, egoera normaletan ez da goizeko 8: 00ak baino lehen hasiko. Jarduera gehienak bi urtean behin egiten direnez, honako egutegi hau proposatzen da:

ACTUACIÓN	Bienal año 1	Bienal año 2
Marquesinas de Erribera kulturgunea		
Cubiertas de Marquesinas de Bus (10)		
Cubierta accesible de patio Ikastola		
Marquesinas de Ikastola		
Cubierta de escenario Emakumeon plaza		
Cubiertas textiles parques infantiles (3)		

Jarduera horiek kontratuaren indarraldiko bi urteetan egingo dira, eta luzapenik gertatuz gero, ezarritako maiztasunari eta ordenari eutsiko zaio.

III. KAPITULUA ZERBITZU ARAUTEGIA

LAN ETA GORABEHERA PARTEAK

Enpresa esleipendunaren ordezkariak, hilean behin, lanen asteroko partea emango die udal-zerbitzu teknikoei, aste bakoitzean egindako lanak adieraziz.

Era berean, gorabeheren asteroko partea entregatuko du aurkitu diren kalte eta anomaliak eta zerbitzu teknikoak ezartzen dituen beste datu batzuk.
Era berean, lorezaintza-lanak behar bezala egiteko edozein azpiegitura-premiarik badago (adibidez, ureztatze-ahoak ipintzea, ibilgailuentzako sarbideen egoera txarra, eta sor daitezkeen gainerako premiak), ahalik eta lasterren jakinarazi beharko zaio udal honetako Obra eta Zerbitzu Departamentuari, horiek konpontzeko dagozkion neurriak hartu ahal izateko.

Udal-zerbitzu teknikoek aldez aurretik onartuko duten formatuan entregatuko dira aipatu diren parteak.

FAKTURATZEKO MODUA

1. lotearen esleipendunak hilean behin faktura bat egingo du zerbitzua eman ondoren, eta aldez aurreko txostena egin beharko du, ondoren kontu-hartzailetzara bidaltzeko.

2. lotearen esleipendunak faktura bat egingo du bi urteko jarduera bakoitzean zerbitzu bakoitza egin ondoren, hala dagokionean. Faktura aurkeztu ondoren, aldez aurreko txostena egingo zaie, ondoren esku hartzera bidaltzeko.

IV. KAPITULUA - LIZITATZAILEEN BETEBEHARRAK

ENPRESAREN EGITURA

Enpresa esleipendunak zerbitzuaren ohiko premiei eta sor daitezkeen gorabeherei aurre egiteko moduko egitura izan beharko du. Oro har, behar adina langile izan beharko ditu zeregin horretara destinatuta, agiri honetan xehatzen den lan-programa beharrezko baliabide teknikoekin eta segurtasun-neurri egokiekin garatzeko eta sor daitezkeen bajak bete ahal izateko.

Zerbitzuak arduradun bat izango du, eta taldeko langile bakoitza zuzenduko du eta udalak egunero eman ditzakeen aginduak bideratuko ditu.

Teknikari bat ere izango du, lana behar bezala egiten dela gainbegiratu eta kontrolatzeko, eta udalarekin batera zerbitzuaren jarraipena egingo du aldizka bilerak eginez, hobekuntzak proposatuz eta sor daitezkeen ezohiko egoerei aurre egiteko baliabideak prestatuz.

Enpresak zerbitzura modu iraunkorrean eta aldi baterako destinatutako giza baliabideen egokitasuna ziurtatu beharko du, era berean langileak lana egiterakoan ongi eta gustura daudela bermatuz.

Enpresa esleipendunak, bere egituran, informazioa aplikazio estandarretan lantzeko eta transmititzeko (dokumentazioa, lan-parteak, gutunak, eta abar) gai diren langileak izan beharko ditu.

Produktuen eta kontsumigarrien stock nahikoa eta behar bezala kudeatua izango du ere, zerbitzua etenaldirik gabe egingo dela bermatzeko. Azken horiek ingurumen-homologazioren batera egokitzen direla baloratuko da: Europako etiketa ekologikoa, eta abar. Hondakin-poltsak euren hondakin motari dagokien kolorekoak izango dira.

BITARTEKOAK ZERBITZUARI ATXIKITZEA

Lizitatzaileek zerbitzua egiteko beharrezkoak diren makinak eta erremintak eduki beharko dituzte. Jarraian, garrantzitsuenak zerrendatu ditugu:

-Errazteko makinak, maniobratzeko modukoak, eta azalera-errendimendu handia dutenak.
-Segurtasun neurri gehigarriak dituzten errazteko makinak bideen garbiketarako.
-Urezko garbiketa/desugerketa makina, espaloiak eta zoladura duten guneak garbitzeko.
-Urezko garbiketarako eskuila mekanikoa (platera), erremateak eta espaloietako eta oinezkoen guneetako garbiketa egiteko.
-Eskuzko xurgatzaileak.
-Eskuzko haize-makinak.
-Banakako gurdiak eskuzko erraztatzerako, behar bezalako konpartimentuetan banatuta egongo direnak eta hondakin mota bakoitzari dagokion koloreko poltsak erabiliko dituztenak.

Oro har, beren lana dagokion segurtasun-mailarekin egiteko beharrezko bitartekoak izango dituzte (dagozkien norbera babesteko ekipamenduak).

Kontratistak zerbitzuan erabiliko dituen erreminten eta materialaren zerrenda aurkeztu beharko du, horien ezaugarriak, antzinatasuna eta abar adieraziz.

LARRIALDI EGOEREN AURREAN ERANTZUTEKO AHALMENA

Enpresak larrialdi-egoera baten, hondamendi natural baten, uholdeen eta abarren aurrean Astigarragako udalaren eskura jarriko dituen baliabide teknikoak eta giza baliabideak adierazi beharko ditu. Zenbat denboraz jarri ahalko dituen ere adierazi beharko du.

Pandemiak sortutako salbuespen-egoeran, esleipendunak Udalaren eskura jarri beharko ditu Astigarragari esleitutako baliabideak, besteak beste, garbiketa edo desinfekzio berezien kanpainetan erabili ahal izan ditzan.

Alderdi horretan egiaztatutako esperientzia izatea balioetsiko da.

ENPRESAREN LAN-PROPOSAMENA

Enpresa esleipendunak lana antolatzeko proposamen bat aurkeztu beharko du, enpresaren berezko bitartekoekin, eta goian adierazitako lanak egitera bideratutako egitura eta bitartekoak definitu beharko ditu bertan.

ZARATEN ETA BIBRAZIOEN EMISIOA

Astigarragako lorategi-zerbitzuetara zarata- eta bibrazio-maila txikia eragiten duten bitartekoak esleitzea bereziki balioetsiko da.

Lizitatzaileek, egiten dituzten proposamenetan, zerbitzuan erabiliko dituzten ibilgailuek eta makinek eragin dezaketen zarata-maila adieraziko dute. Horretarako, erabiliko diren makinen eta erreminten fitxa teknikoak gaineratu beharko dira, eragiten duten zarata-emisioari buruzko datuak barne hartuz.

Edonola ere, zerbitzuak erabilitako haize-makinen zarata-mailak ez ditu 86 db(A) gaindituko. Horretarako metagailua duten haize-makinak erabili beharko balira, horien autonomia adieraziko da eta horiek egun osoan zehar erabili ahal izateko neurriak zehaztuko dira (bateria bikoitza, kargatze guneen kokapena, eta abar).

Erreklamazioren bat egiten bada, udalak maila akustikoaren neurketak egitea eskatu ahal izango du, eta baldintza hori betetzen ez duten erreminten erabilera debekatu ahal izango du.

ZERBITZUAREN ARDURADUNA

Kontratistak zerbitzu honetara destinatutako plantillan arduradun tekniko bat izan beharko du; arduradun hori zerbitzuaren buru eta Udal Zerbitzu Teknikoekiko baliozko solaskidea izango da.

Kontratistak arduradun horren “Currículum Vitae”a aurkeztu beharko du.

LANEN SEGURTASUNA

Enpresa esleipendunak lanak egiten diren bitartean segurtasuna bermatzeko beharrezkoak diren neurri guztiak hartu beharko ditu, laneko

arriskuen prebentzioaren alorrean indarrean dauden legeria eta araudia betez eta arriskuak ezabatu eta minimizatzeko lan eginez.

Honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da udalean:

- Kontratak egin beharreko jarduerari lotutako arriskuen ebaluazioa, eta arrisku horiei lotuta hartu beharreko prebentzio-neurriak. Egin beharreko ebaluazioaren berrikuspenen plangintza.

- Langileek arriskuei eta prebentzio-neurriei buruzko informazioa jaso izanaren egiaztapena.

- Langileek laneko arriskuen prebentzioari lotuta jasotako prestakuntzaren bermea, eta egin beharreko lanetara egokitutako prestakuntza.

- Harremanetarako pertsona bat izendatzea prebentzio-jardueren koordinaziorako arduradun gisa.

- Egin beharreko lan bakoitzean nahitaez erabili beharreko norbera babesteko ekipamenduen zerrenda.

LOKALAK

Kontratistak behar bezala egokitutako lokal bat izango du udal-mugartean, bertan makinak gordetzeko eta zerbitzuko langileen aldagela gisa erabiltzeko. Era berean telefono-zenbaki bat izan beharko du zerbitzuari buruzko abisuak jasotzeko, bulego-ordutegiarekin.